

Hirugarren mundu-gerra

Hirugarren mundu-gerra ezinbestekoa omen da.

Zeinek piztuko, ordea?

Bi dira piz dezaketenak: Estatu Batuek eta Soviet Batasuna. Baina Estatu Batuek defentsiban eta beldurrez bezala daude orain. Soviet Batasuna, osteta, harro eta erasotzaile.

Zergatik, baina, gerrara jo?

Europagatik: «Je dis que la troisième guerre mondiale éclatera pour l'Europe». Argiago ezin esan. Europagatik, alegia, Europako ekonomi sendoagatik, Europaren eragin politikoagatik, Europaren indar militarragatik. Hori dena behar duelako Soviet Batasunak mundua gobernatzeko: «Les Soviétiques ne pourront établir l'hégémonie globale à laquelle ils aspirent que s'ils ont l'Europe».

Deklarapen hauen alkantzua? «Antikomunista primario baten deklarapenak ote? Ez dut uste, maoistak ere antikomunista direla aurretik deklaratzeko ez bada behintzat. Europearron begietara hautsa botatzea ote? «Bat bitan banatzen denaren» eta «eztabailetan» ezkutukiak ikasi dituenak hala usteko du, noski. Nik, simple-simple, Txinako agintarien analisiaren fruitu bezala ulertzeko joera dut.

Izan ere, deklarapen hauek ez dira edozeinenak. Deng Xiaoping jaunaren hitzak dira, abuztuan Oriana Fallaci entrebistari sonatuari esanak. Deng Xiaoping hau, Maoren burkidea, irailaren seian dimititu arte, Lehen ministroordea zen, Txinako bigarren gizona. ■
Joanes Lekerika.

Bakantzetan historia ikasi

Paradore Nazionalean zegoen salgai liburutxo hau, *Peñiscola*, 1962, J. Catalán Bolinches batek egina, 70 orrialdetako foileto historiko ttipi bat, eta erosi egin nuen, eguzkia hartuz, aurrez-aurre neukan gaztelu harroak zer historia ote zuen, ikasteko, patxadaz etzanda hondartzan.

Izan ere, bidezkoa da: Paradore Nazionalen prospektoak dioenez, Secretaría de Estado de Turismo-k Paradore sare bat zabaldu du Estatu guztian, «paraje gutxien frekuentatu, baina interes turistikoa nabarmenekoetan», leku historiko inportanteetan bereziki. Eta bidezkoa da, turismo nazionalari begiratzen dion Estatuak, lekuotan hain zuzen turistari behar bezalako informazio historikoa ere eskaintzea. Informazio nazionala. Nik holaxe irakurri nizun, beste batean, *Navarra* liburuxka ere, Herriberri/Oliteko Paradorean. Egilea,